

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/6/3 | 345

©	Jose Agustin Arrieta eta Eider Elduaien
©	Alardea, 1813an frantsesen inbasioari aurre
©	Bidaietan tripako minak!
©	Sormenaren aldeko udalekuak

Eskola  
txikien  
festa



Eskola Txikiak  
Bizirik,  
herri eta auzo txikiak bizirik

## Kabitazioa

Zelulitisa gutxitzeko tratamendua  
Homologatua eta klinikoki egiaztatua  
Lehenengo saiotik nabarituko duzu aldea. 2,8 zm gutxiago

10 saioko abonua hartu eta 7 bakarrik ordaindu

Saio bakoitzean:

- mesoterapia birtuala
- kabitazioa
- presoterapia

Abonua hartzen duten lehenengo 5 pertsonak, etxean tratamendua jarraitu ahal izateko krema antizelulitiko bat izango dute dohainik

Pablo Gorosabel, 7 - 20400 Tolosa  
Tel.: 943 536 971

# P.OÑATIBIA

## e s t e t i k a



# SUPER EKO


SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua  
Erosketak etxera  
eramateko zerbitzua



Cola Cao  
1,200kg-ko poltxa  
5,89 €

Zumalakarregi, 4  
943 65 09 01  
Tolosa



aldama\_tapia  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
gtolosa@aldamatapia.com  
www.aldamatapia.com



AZKEN  
DENBORALDIKO  
BETAURREKOAK

Eguzkitako  
betaurreko  
graduatuak  
kristalok berriz

57€

Estimatuza hau betegarria izango da 2011/06/30ra arte. Kontuzka itzazu optikan, kampaniaren estalpenak. Ezingo da pilata beste promozio batzuekin.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS  
lehenaz zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 655 004  
 Faxe: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague  
 Banatzaileak: Olatz Garmendia  
 Juankar Arregi  
 Zuzentzailea: Nora Olano  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOITIK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO  
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena



## Erreportaia: Eskola Txikiak Bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik

Datorren ekainaren 12an Abaltzisketako Txalburu Eskolak Eskola Txikien festa ospatuko du. Festaren nondik norakoak eta eskola txikien egunerokotasuna hobeto ezagutzeko asmoz Galtzaundi Txalburu eskolara gerturatu da. Bertan Pilar Maizak, eskolako zuzendariak eta Joxe Ramon Mujikak, guraso elkarteko ordezkariak harrera egin digute bertako ikasle eta irakasleekin batera.

8-11. orrialdeak

Ibiltariei aterpea eskaintzeko Abegi egoitza egokitu zutenetik 25 urte beteko dira urrian. Miguel Otamendi tolosarra ekimen haren bultzatzaileetarikoa bat izan zen eta, egun, bost Londres lanetan jarraitzen du bertan.

Elkarrizketa: Miguel Otamendi

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Jose Agustin Arrieta eta Eider Elduaien	4-5
	Tolosako Alardea, 1813an frantsesen inbasioari aurre	12
	Koxk!: Bidaietan tripako minak!	17
	Kultura: Sormenaren aldeko udalekuak	18-19

## Pentsakor eta itxaropentsu



Joxe Agustin Arrieta  
Irakaslea

4 Ez da erraza giltza aurkitzea eta gainera atea irekitzea. A ze katramila eta etorkizuna daukagun! Ez naiz ari bakarrik nork agindu behar duen esaten gure erakunde nagusietan, bai Foru Aldundietan eta udaletxeetan, baizik eta erakunde hauetan sinistu behar dugula, gure hurbileko eta inguruko gobernu erak baititugu. Hauteskundeetako emaitzek konponketara bultzatu dituzte alderdi politikoak. Ea bide honetan aurrera egiten duten!

Azken hauteskundeko emaitzak ikusita, lau edo bost taldeen oinarritzko presentzia eskatzen du. Abertzaleen oinarritzko egitasmo iraunkor batek pare bat alderdi abertzale indartsu edo eskatzen ditu...

Norbaitek esan diezadake bakealdiaren luzapena beharrezkoa dela. Hau gabe ezinezkoa zitekeen konponbide bat. Zorionez pauso onak eman dira. Konponbidearen aldeko giroa asko hobetu da. Zakarraldirik etorriko balitz, konponbiderako atea sarrailez eta morroiloz itxirik geratuko litzateke aldi luze-rako eta agian, betiko. Ze berri ona izango litzatekeen ETA desegin eta desagertu egiten dela.

Abertzale eta beste hainbat taldek onartutako oinarritzko egitasmoa eta jokabidea da beharrezkoa zerbait egiteko. Euskaldunen batasun, askatasun, euskalduntasun eta burujabetza-nahiak sustatu eta indartuko dituen, hasteko.

Demokraziak, Estatutuak, Foru Hobekuntzak, Europak, Euskal Herri osora zabaltzen diren alderdi, sindikatu, erakunde, elkarte eta harreman bideek aukerarik eskaintzen digute herri hau elkartzen, osatzen, euskaltzaitzen eta abertzaleen lan egiteko. Hauxe erronka. Eta askatasun eta burujabetza-nahiak bazter guztietan nagusi direnean, nahi bezalako askatasuna eta burujabetza lortuko ditu herri honek.

Orain arte kenketa gehiegi egin dugu. Orain gehitzen ikasi behar dugu. Ni baikor nago egoera zaila eta korapilatsua baldin bada ere. Nola ez gogoratu udan orain dela 3 urte musika eta letra hura: "pixka bat es mucho eta asko mogollon".

Nik hori bultzatu nahiko nuke. Alde batetik, "pixka bat es mucho" esaldi hori egi bihurtu daitekeelako: sufrimenduan dagoenaren gertuko banaiz, kaleko eskaleari atea ixten ez diodan neurrian, erietxean inork bisitatzen ez duen adinekoa edo ikasle atzeratu edo trakets horri denbora eta harrera ematen diodan neurrian...bada udaberri berdea, noski, beharrez dagoenari lagundu eta babestu. Euskal Herriak ere horrelako zerbait behar du.

Maiatzaren 15eko mugimenduek eta gure azken hauteskundetako emaitzak zer esana eta zer elkar-lanera bultzatu behar gaitu, horrelako "euskalrevolu-

tion" bat egin behar dela...ez dut uste hainbesterako denik. Hori bai, gure eguneroko bizitza eta politikagintza txukun egin beharko dugu. Esperantza nahi badugu, bakoitzak egin beharko dugu esperantzaren ariketa geure barruan. Eta itsu gaudela, edo egon gaitzekeela gutxienez, pentsatzen hasi beharko dugu. Ez ikustea txarra baita; baina ikusi ustez dabilenaren itsutasuna, okerragoa.

93 urteko Stéphane Hessel filosofoak mobilizatzerako deia bultzatu zuen. Ez dakit guzti hau zertan bukatuko den, baina beste baloreen hierarkia beharrezkoa dugu: besteekin elkarbanatu, pertsonak diren neurrian errespetatu eta estimatu, dirua ez pilatu baizik zuzen eta justiziaz banatu, agintea zerbitzu bezala erabili... nik uste bide honek zerbait berria ekar dezakeela. Beharrezkoa da krisi ekonomikoari zuzentasunez eta justiziaz erantzutea eta gure Euskal Herri honen erabaki bidea eskubide eta eskuratze modua bideratzea eta gauzatzea.

Nik ez dakit garaialdi berriaren ote gauden, ez dut uste, baina Europa sozialago bat egin behar dela garbi ikusten dut. Nire ametsetako Europa eta Euskal Herria elkartasuna adierazten duena eta bertako eta kanpoko justiziaz arduratzen dena da. Erromesek mutur batetik bestera Santiagoraino oinez egiten zuten Europa hura, sinismen, arte eta kultura batzen zituena. Mugarik izango ez duen Europa bat, Euskal Herri bat, baina ez soilik albanbrezko mugak, baita gure bihotzetan eraikitzen ditugunak ere.



## Aldaketa bizi eta gozatu

Pozik, zoriontsu, gogotsu, ilusioz beteta hartu dugu erronka eta bestelako herri bat eraikitza goaz, egungo eredu sozial eta politikoaren aldaketa helburu izango duena. Kolore morea ere izango du bide horrek, emakumeok ere gure osotasunean aske izango garen herria nahi baitugu. Emakume erasotu eta bazterturik egongo ez den herria, emakumeak izateagatik lan baldintza okerragoak pairatuko ez dituguna, gure sexualitatea modu askean bizitzeko aukera emango diguna, emakumeek ere gure herriaren historiari egin dioten ekarpena ezagutaraziko diguna, gure ahotsa ozentasun berarekin entzungo dena.

Orain arte ez gara besoak gurutzaturik egon. Baina hemendik aurrera bultzada berezia eman behar diogu eraldaketa sozial eta politikoari. Eta laster gure eskualdea zeharkatuko duten jaie-tatik hasi gaitzke. Zergatik ez? Festak eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira. Jaiek, norbanakoa kolektibora hurbiltzen dute. Afektibitatez betetako gertakariak dira, esangura pertsonal, familiar eta sozialak dituztenak. Herriaren nortasuna, jendarte egitura eta hortaz, bertan ematen diren zapalkuntza eta diskriminazioak adierazten dituzte. Jaiek askotan dibertsio hutserako gertaerak izan dira. Horre-

gatik, jaien baitan ematen diren sexuen arteko botere harremanak pasadizo huts bezala hartu izan dira. Jai eta erritoek ordea, jendarte ordena erreproduzitzen dute, egungo hierarkiak, botere harremanak, rol banaketa eta emakume eta gizonen irudi idealizatuekin batera. Horregatik da garrantzitsua, jaietan ere ikuspegi feminista txertatzea eta egun dau den egiturazko zapalkuntza guztiei aurre egingo dien lana egitea.

Ohiturek ere bide berean joan behar dute. Tradizioa ez baita ezer hertsia, monolitikoa, bizirik dagoen zerbait baizik. Jaiak kultur sortzaileak izanik, herritarrek erabaki behar dute, komunitatean, auzolanean, tradizio batek iraun edo hil behar duen, berrikuntzak sartu behar diren eta zein norabideetan gertatu behar duten aldaketa hauek.

Jendartean eman nahi ditugun aldaketek gure herriko festetan ere isla izan behar dute, jaietan ere kultura birsortu eta aldatzeko gaitasuna dugulako. Guk eraikitakoa guk alda dezakegu. Eta bide horretan, herri jai parekideen aldeko jardunarekin jarraituko dugu aurtengoan ere Bilgune Feministan. Aurten, emakume gehiago izango gara Euskal Herriko plazetan, herri guneeetan, txosnetan, jaiak askatasunez biziz, gozatu, dastatuz, usainduz ariko garenak...negua joan da ta. ☺



Eider Elduaie Olazar  
Tolosaldeko Bilgune Feminista

*“Elurak joan direnean nire mendien artean, eguzkia teloiaren atzekaldean da...soinu bakar bakarra, zure bularraldean, negua joan da ta borobildu zaizkit ertzak, zure ondoan izpi lasaigarri bat, negua joan da ta, negua joan da ta...”*. Zea Mays-en kantuaren letra nire eginez, maiatzaren 22a tunel luze baten amaierako argia bezala iritsi da ezkertiar eta abertzale askoontzat.



# Euskara ospakizunerako ardatz

6

Euskara ardatz hartuta datozen egunotan hainbat ekitaldi ospatutako dira Euskal Herrian barrena, ondorengo lerroetan Uema Eguna edo Mintza Eguna adibide gisara jasota ageri dira.

Naiara Roldán de Aránguiz

## Mintza Eguna

Ekainaren 4an, Elizondon, Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak bultzatuta herrietan eta herrietan zehar euskaraz mingainari eragiten aritzen diren lagun ugari bilduko dira 'Mingainak dantzan' lemapean. Euskara Elkarrekin -tartean Galtzaundi-euskaltegiekin eta euskalgintzako beste eragileekin kudeatzen dituzten mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen duten berbalagun, mintzakide, mintzalagun, solaskide guztiek elkar ezagutu eta egun pasa egiteko aitzakia da Mintza Eguna.

Mintza Egunak mintzapraktika mugimenduaren bi helburuekin bat egiten du: egitasmoaren ta-

maina eta zabalkundea ezagutzera ematea eta egitasmoaren alde ludikoa azpimarratzea, ikas-turteari bukaera emanez.

Seigarren edizioak mintzalagun ororentzat ondorengo egitaraua prest du goizeko 11.00tan hasita: ongi etorria eta hamaiketakoa, ibilaldi gidatua tokiko berezitasunak ezagutzeko, mintzabermuta, bazkaria, sari banaketa eta euskal erro-meria.

## Uema eguna

Ekainaren 4an, Bergaran, 'Gure hizkuntza har dezan arnas' lemapean Uemak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak Uema eguna ospatuko du Ber-

garako udalarekin elkarlanean. Euskarak arnasa hartzeko dituen tokiei eman nahi die garrantzia, euskararen arnasmune diren lekuak zaindu eta babestu egin behar direla aldarrikatuz. Eguna, Uemaren baitan 60 herri daude, tartean gure eskualdeko Irura, Anoeta, Elduain, Leaburu-Txarama, Beluntza, Oresa, Gaztelu, Alegia, Ikaztegieta, Amezketa, Baliarrain, Altzo, Orendain eta Lizartza azpimarratu behar.

Jon Bollarrek, mankomunitateko lehendakariak, Uema egunaren aurkezpenean zehaztu modura ospakizuna "Euskal Herriaren hizkuntza normalizazioaren prozesuan mugarri izatea" espero du. Izan ere, Bollarrek adierazi duenez, "egoera politiko berriak eta udal hauteskundeen emaitzek aukera emango digute hurrengo hilabeteetan inoiz ez bezala hazteko. Ueman sartzeko, bi baldintza bete behar dira: batetik, baldintza soziolinguistiko batzuk betetzea (herriko euskaldunak gutxienez %70 izatea), eta, bestetik, udalak nahi izatea (hau da, borondate politikoa izatea mankomunitateko kide

izateko). Hauteskundeen emaitzei begiratu besterik ez dago konturatzeko mankomunitateak inoiz ez bezalako handitzea izan dezakeela".

Bestetik, jai izaera mantenduz ondorengo egitaraua zehaztu du udalerrri euskaldunen mankomunitateak Uema egunerako: hitz gurutzatuen binakako lehiaketa, umeentzako jokoak, ekitaldi instituzionala, euskal kantuzaleen elkarrearen laguntzaz kantu-jira, herri-bazkaria, umeentzako tailerrak eta jokoak, dantzaldia eta kontzertua.

Ospakizun hauetaz gain ekainean hizkuntza-eskubideei lotutako bi gertakarien urteurrena ospatuko da ere, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 15. urteurrena eta, Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren 10. urteurrena. Behatokiak hauen ospakizunerako "Hizkuntza-eskubideen aitortzarako eta defentsarako estrategiak" izenburupean nazioarteko II. Sinposioa egingo du Donostiako Miramar jauregian, ekainaren 8an eta 9an.

## Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA

Duten garrantziaz jabetzeko,  
faltan izan arte itxoiten dugu maiz



Baserriko produktu naturalak  
Mahala baserria • LEABURU  
Tel.: 943 673 499



Osagaiak  
Desarrolloak  
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199  
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO  
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 673 726 • Faxe: 943 673 462

# ANTZA



ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

Ekainak 12, Eskola Txikien Festa Abaltzisketan

8

# Eskola Txikiak

## herri eta auzo txikiak bizirik

Datorren ekainaren 12an Abaltzisketako Txalburu Eskolak Eskola Txikien festa ospatuko du. Festaren nondik norakoak eta eskola txikien egunerokotasuna hobeto ezagutzeko asmoz Galtzaundi Txalburu eskolara gerturatu da. Bertan Pilar Maizak, eskolako zuzendariak eta Joxe Ramon Mujikak, guraso elkarteko ordezkariak harrera egin digute bertako ikasle eta irakasleekin batera.

Naiara Roldán de Aránguiz




Txalburu eskola martxan egoteaz harro dira Pilar Maiza zuzendaria eta Joxe Ramon Mujika guraso elkarteko kidea. Txindoki mendiaren magalean kokaturiko eskola txiki honek historia luzea du, urtetik urtera idazten jarraitzen dena. Amaitzera doan 2010-2011 ikasturte honetan lau gela

indarrean ditu Abaltzisketako eskolak. Lehenengoan 2 eta 3 urteko haurrak daude; bigarrenengan 4 eta 5 urteko haur hezkuntzako ikasleak daude; hirugarrenengan lehen hezkuntzako 1., 2., eta 3. mailakoak eta azkenik laugarrenengo gelan lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak.

Guztira 37 ikasle eta 7 irakasle ditu zenbait urtez atek itxita izan dituen Txalburu eskolak. Izan ere, aldizkako historia jasan du eskola txiki honek; garai bateko eskolak 1975ean bere atek itxi egin behar izan zituen berriro ere 1999an herriko umeen ikasleku papera berreskuratu eta gaur





# k Bizirik,

egun bertako ikasleek igortzen duten bizitasun eta naturaltasuna errealitate egiteko.

Hala ere, eraikuntzak tartean bestelako papera ere bete izan du Abaltzisketa herrian, horrela gogoratzen du behinik behin Joxe Ramon Mujikak: "eraikinak beti garrantzi berezia izan du; gure gurasoen garaian eskola funtzioa bete zuen eta ondoren itxita egon den urte mordoxka batean alberge edo ostatu bezala funtzionatu izan du". Horrek herrian, Joxe Ramonek

aitortzen duen moduan, giro berezia sortzen zuen: "udaran kanpoko jende asko ibiltzen zen, bertan ikastaroak egiten zituzten. Kanpotarrek hemen igarotako egonaldiak gogorantzango dituzte, herria horrengatik gogoratuko dute".

## Egitaraua

**10.30-11.15** Harrera ekitaldia

**11.15-13.15** Haur jolasak. Goiko kalean, frontoian eta frontoi atzeko karpan

**13.30** Lekuko aldaketa

**14.00** Bazkaria

- Katerina frontoian
- Etxetik dakartenak karpan

**16.30** Ekitaldia

- Pirritx eta Porrotx (txikienentzat)
- Malabarismoa (handiagoentzat)

### Egunean zehar

- Frontoi ondoko "Goibegi" eraikuntza berrian, eskoletako eskulanak ikusgai egongo dira.
- "Eguzki Lore" etxetik "Pilin" alderantz Zaldibiako idiak karroarekin haurrak ibiltzeko.
- "Laguntasuna" errondaia



## Kanta

Eskola txikiak herri ta auzo, geroaren bila pausorikan pauso.

Batzuetan hobea izatea txiki Daviden historia edozeinek daki.

Txepetxa bera ere txorietan txikiena. Polit askoa da Inbidi(a)rik ez du(e)na.

Eskola txikiak herri ta auzo, geroaren bila pausorikan pauso.

Baseri ta kaleak denak loraturik, eskola txikiak badaude bizirik.

Denok elkar hartuta (elkarrekin) dezagun kantatu txikia ez dezaten inoiz ezkutatu.

Eskola txikiak herri ta auzo, geroaren bila pausorikan pauso.

Pausorik pauso, eskola txiki izan arte

Gaur egun ordea eraikinak berriro ere eskola modura aritzeko, bere historia idatzi ahal izateko, ikasturtez ikasturte pausak ematen jarraitu du: 1999an bere atea berriro ireki eta 2000-01 ikasturtean lau ikasle gehitu ziren. 2001-02an hiru haur eskolaratu eta jangela zerbitzua eskaintzen hasi zen Abaltzisketako eskola. Hala ere, ikasturte horretan lehen mailako ikasketak Amezketa egin behar izan zituzten. 2002-03 ikasturtean udalaren laguntza medio lehen mailako ikasketak Abaltzisketan burutu ahal izan zituzten bertako ikasleek.

2003-04 ikasturtea bitartean Amezketa Zumadi Eskolaren zati bezala funtzionatutakoak 2004-05ean "Eskola Txiki" izae-radun Txalburu Eskola sortzeko baimenak eskuratu ziren. 2007-08 ikasturtean lortu zen haur hezkuntza eta lehen hezkuntza kurtso guztiak eskaintzeko bidea, gaur egungo 4 gelatan banatutako 37 ikasleak eskuratzearaino.

Kokalekuari dagokionez 2006. urtea bitartean ikasleak Kultur Etxea eta Udaletxeko gelatan banaturik zeuden baina urte horretan ordura arte herrian Eskoletxe modura ezaguna zen eraikuntzan moldaketa lanak egin eta hura eskola bihurtzea erabaki zen. Abaltzisketako Udalak bere gain hartu zuen obraren kostua. Eta gaur egun ere, Pilar Maiza zuzendariak azpimarratzen duen moduan udalaren laguntza ezinbestekoa da, mantenu kostuak -ura, argia, konponketak...- bere gain hartzen ditu eta.

Adin ezberdineko haurren hartu-emanak

Eskola Txikien funtsa adin ezberdineko ikasleak klasean batera egotean datza eta horrek harremanetan eragin zuzena du, hala zehazten du Pilar Maizak:



"elkarrekin eta adin ezberdinak gelan edukitzeak elkarrengandik ikastea ahalbidetzen du; harremanetan eta harremanetatik ere asko ikasten da".

Harremanetan oinarritzen da eskola txikien egunerokotasuna, irakasle bakoitzak eskola arruntetan baino haur kopuru askoz murriztagoak izanda harremanak hurbilagoak, zuzenagoak, gertuagoak, pertsonalizatuagoak sortzen dira.

Txalburu Eskolako zuzendariari eskola txikien abantaila eta desabantailaz galdetzeko orduan argi eta zuzen erantzuten du: "nik abantailak baino ez dizkiot ikusten". Harreman horiek bideratu ahal izateko hala ere, adin ezberdinak gela berdinean izatea, metodologia aldetik, irakaslearen aldetik, aldaketa eta egokitzapen bat eskatzen du. Pilar Maizak horrela laburbiltzen du: "irakaskuntza tradizionalak

hemen ez luke tokirik izango". Egoera honi probetxua atera eta eskolak berak martxan jarri behar ditu lan egiteko bestelako erak, proiektu ezberdinen bitartez: "non ume guztiak, nahiz eta adin ezberdina izan, lan berdinean ari

diren elkarrekin". Proiektu hauek garatzeko orduan, eskola beraren esku daude baina beti ere Berritzegunetik laguntza jasota, formazio aldetik behinik behin.

Eskola bisitatzeko garaian pasilloetatik barrena eta ikasgela barruan antzematen eta bizi den familia giroak jangelan ere jarraipena du. Txalburu eskolako ikasleak eraikin berdinean kokaturiko Ostatu tabernan bertan prestaturiko etxeko janaria bazkaltzen dute egunero. "Familia batean bezala jarduten gara", aipatzen du Maizak.

Harreman horiek sortzeko bestelako euskarria gurasoak dira. Eskola Txiki bat martxan egoteko ezinbestekoa da herri txiki horretako udalaren eta herritarren inplikazioa. Guraso Elkarteak gainera berebiziko garrantzia du, eskolak dituen beharren arabera sortzen da laguntza eta lankidetzaren gurasoen elkarrekin alde-







tik. Eskola handietan ez bezala, Txalburuko ordezkariak aipatzen duten modura, bertako ikasleen gurasoak egunero ikusten dituzte; eguneroko harremana nabaria da.

#### Errebindikazioak

Abantailak besterik aipatu ez arren egunerokotasuneko jardunear aurkitzen dituzten zailtasun eta errebindikazioez ere galdetu diogu Pilar Maiza zuzendariari. Bere eskaera irakasleen finkotasunean oinarrituta azaldu da, urtetik urtera irakasle berdinak mantentzea, alegia. Eskola txiki batean lanean aritzeak eskatzen duen inplikazio maila altuagoa kontutan harturik, "perfektuena irakasle aldetik finkotasuna egoitea litzateke".

Eskola Txikiek "zerbitzu eginkizunak" delakoak medio aukera ematen dio eskolari irakaslea bertan mantentzeko oposaketa plaza eduki ez arren. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak %50ean baino ez du irakasle goaren finkotasuna bermatzen, gainerakoa libre utziz. Pilar Maizaren eskakizuna beraz, urtetik urtera irakasleak mantentzearena da.

Ekainaren 12an, Eskola Txikien Festa

Ekainaren bigarren igandea

Abaltzisketa Txalburu eskolari esker, eskola txikien kokaleku bihurtuko da. Izan ere, eskola txikien nortasunari jarraiki, festa hau eskola txikietako jendeari zuzenduta egongo da; ikasle, irakasle, gurasoak elkartzeko eta festa ospatzeko data izango da.


Joxe Ramon Mujikak aitortu modura Eskola Txikien Festaren ospakizuna eskola txikien presentzia errebindikatzeko baliagarria da: "eskola txikiak hemen gaudela, izango garela eta beharrezkoak garela", azpimarratu nahi izan du. Gizartea kontzientziatu nahi dute eskola txikiek betetzen duten paperaz bai herri zein auzo txikientzako.

Izan ere, festaren leloak zabalitzen duen moduan eskola txikiak errebindikatzeaz gain herri eta auzo txikiak ere aldarrikatzen dira: "eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik". Joxe Ramonek eskola txikien eta herri txikiaren arteko erlazioa "zuzena" dela dio: "ikaragarri ematen dio eskola txiki batek herri txiki bati; haurren artean, gurasoen artean erlazioak izateko orduan... Abaltzisketaren kasuan ezinbestekoa da eskola txiki bat izatea".

Festaren antolaketan buru belarri aritu den Joxe Ramonek lasai dagoela aipatzen du, lana eginda duenaren sententzioarekin: "dena prestatuta dagoen-

ez, eguna ailegatzeko zain jarrita gaude". Urte mugitua izan dute Txalburu eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek festaren antolakuntzari dagokionean eta baita festa eta eskola txikien izaera bera ezagutzera emateko garaian ere: Leidorren oholta gainera igo eta Piritx, Porrotx eta Marimototsekin batera bi abesti dantzatzuz, Mikel Labaka eta Eñaut Zubikarai Errealeko jokalarien bisita jasoz, Donostian prentsaurrekoa eskainiz...

Aparteko lan hauek bere oihartzuna izan eta Eskola Txikien Festaren ospakizuna eta eskola txikien garrantzia zabalteko baliogarriak dira.

1988. urtean eskola txikien lehen festa ospatu zenetik hona urteak igaro badira ere Joxe Ramonen ustetan festak indarrean jarraitzen du, "egiten jarraitzeko moduan". Hirugarren urtez jarraian jaia Tolosaldean ospatuko da; lekukoa Berrobi, Altzo eta Abaltzisketatik pasata. Eta hurrengo urteari dagokionez gainera, testigua eskualdean mantenduko da izan ere 2012an Larraulek hartuko du ospakizunaren testigantza. 2012an ere "Eskola Txikiak Bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik" aldarria entzuteko beta izango dugu Tolosaldean. 

**Beti Nahi**  
*galester*



Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



**GORRI**

Paper manipulaziorako makina eraikuntza

Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.  
Baratzondo D 26. Ibarra  
Tel.: 943 671 590.  
Faxa: 943 673 916

**SANZ**  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Gozotegia Okindegia

**ECEIZA**

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



# Tolosako Alardea, 1813an frantsesen inbasioari aurre

12 Ekainaren 12an, igandean, eguerdiko 12.00etan hasita, Tolosak 1813an frantsesen inbasioari aurre egiteko hiribilduan egin zen bataila gogora ekarriko du, horren oroigarri gisa Tolosako Alardea ospatuko da Andia Kultur Elkarteak bultzatuta.

Erredakzioa




Nafarroako zubia eta Zerkausia izango dira alardearen kokaleku garrantzitsuak; 1813ko ekainaren 25 hartan, frantses inbasioari aurre egiteko eszenatoki izandakoak. Bataila horretan parte hartu zuten 45.000 nazionalitate ezberdineko pertsonak –frantsesak, ingelesak, portugaldarrak, italiarrak, alemaniarrek...- eta bertakoak noski, gogora ekarriko dira ekainaren 12an burutuko den ekitaldian. Andia Elkarteak martxan jarritako ekimenak Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoaren arreta piztu eta irteera antolatu dute bertako arduradunek Tolosara gertakizuna bertatik bertara sentitzeko eta “garaiko bizitzari buruzko xehetasunak ezagutzeko”.


Ekainaren 12an Tolosako kaleak jendez beteko dira; 145 pertsona izango dira gutxi gorabehera alardean parte hartuko dutenak: Tolosako Musika Banda, frantses eta ingeles soldadu taldeak, bertako herritarrek garaiko uniforme eta jantziekin eta baita ikastolako haurren abesbatza, orduko kantu zaharrak abestuz.

24 orduz iraun zuen bataila oraingoan desfile gisara ordubetz luzatuko da; alardearen zuzendari artistiko eta koreografo lanetan Jose Mari Tuduri Esnal arituko da. Ekitaldia eguerdiko 12.00etan hasiko da tropen desfilearekin herriko kaleetan barrena, hasiera eta bukaera Musika Eskolan

izango ditu, ondorengo ibilbidea burutuz: Musika Eskola, Gorosabel kalea, Rondilla kalea eta Triangulo plaza. Enparantza honetan ‘instrukzio ariketak’ egin ondoren Nafarroako zubiraino joko dute; bertan antzezpina burututa Enperadore kaletik, Gorriti plazan barrena Musika Eskolaraino helduko da desfilea.

13.00ean, Nafarroako Zubian antzezpina egingo da, bertan Beethovenen ‘Gasteizko bataila’ pieza joko du Tolosako Bandak soldadu ingelesez eta frantsesez lagunduta. Garaiko armak, gala-uniformeak, kanoiak, artilleroak, banderak, mosketoiak eta fusilariak leihotetan ez dira faltako. 





# IES Hernani BHI

A. Iturriaga-K.Labaka



DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION  
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA




## 2011-12 ikasturtea Aurrematrikula ekainaren 1etik 10era



### Heziketa zikloak:

#### Erdi mailako zikloak:

- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Telekomunikazio instalazioak 

#### Goi mailako zikloak:


- Fabrikazio mekanik oko diseinua
- Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak
- Gizarte eta kultur animazioa

### Eskaintza partziala

- Instalazio elektriko eta automatikoak: Hernani, Easo eta Usurbilen arteko plana.

### Hasierako Lanbide

### Prestakuntzako Programak

- Mekanizazioko langilea 
- Etxeko jardueretarako eta mendeko pertsonentzako oinarrizko zaintzetako laguntzailea

### Sarbide Proba

- Goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proba prestatzeko ikastaroa.

Santa Barbara auzoa, zg. Tfnoa: 943-551188  
K. Labaka, 7. Tfnoa: 943-551958

www.hernanibhi.com – e-mail: institutua@hernanibhi.com

# Miguel Otamendi

## “Gogorra egiten da lo egiteko oherik e<sub>z</sub> dagoela esan behar izatea”

Ibiltariei aterpea eskaintzeko Abegi egoitza egokitu zutenetik 25 urte beteko dira urrian. Miguel Otamendi tolosarra ekimen haren bultzatzaileetako bat izan zen eta, egun, bolondres lanetan jarraitzen du bertan. 72 urte ditu eta horietatik 25 eskaini dizkio non lo egin ez dutenen gutxieneko oinarrizko beharrak asetzeko bolondres lanari. Bere esanetan, bertan egiten duen lanak pertsona bezala aberastu egiten du. Aldiz, ohe guztiak okupatuak daudelako nor edo nori bertan ezin duela lo egiten geratu esatea gogorra egiten zaio. Tolosako Agintari kaleko 7. zenbakian egoitza duen Abegiren egunerokotasunaz hitz egin du Miguel Otamendik Galtzaundiri eskaini dion elkarrizketa honetan.

Igor Mujika

### Noiz eta nola sortu zen Abegi?

Urriaren 4an Abegi sortu genuenetik 25 urte beteko dira. Santa Maria elizako konfirmazio osteko taldeetatik sortutako egitasmoa da. Hotz handia egiten zuen eta hainbat

pertsonek kalean egiten zuten lo. Horri soluzioren bat bilatu nahian lanean hasi ginen. Lokal hau parrokiarena da eta utzi egin ziguten. Orduan gazte ginenok barruko hormak botatzen, egoitza antolatzen,...

hasi ginen. Garai bateko Igarondoko zineman bi merkatu txiki ere egin genituen eta dirutxo bat atera genuen. Halaber, Udalak orduko milioi bat pezeta eman zigun.

Mahaiaik, oheak... ere lortu genituen hemendik eta handik. Lagun asko inplikatu ginen egitasmoan, 30-40 lagun izango ginen guztira.

### Egun Abegik zein laguntza jasotzen du?

Udalak eta Diputazioak ematen zizkiguten dirulaguntzak. Krisiaren ondorioz, ordea, Udalak dirulaguntzak kendu egin zizkigun eta, egun, Diputazioaren dirulaguntzak bakarrik jasotzen ditugu. Ekarpinak ere jasotzen ditugu. Eroskik, esaterako, janaria ekartzen digu. Onak egonik ere epea betetzear daudelako beren apalategietatik erretiratzeko dituzten produktuak ekartzen dizkigute Eroskiko langileek. Halaber, Tolosako elkarte gastronomikoetatik ere afarietan,... sobratutakoak ekartzen dizkigute.

### Abegik zein zerbitzu eskaintzen ditu?


Dutxa, afaria, ohea eta gosaria eskaintzen ditu Abegik. Nork edo nork ogitartekoren bat nahi badu ere

ematen zaio. Arratsaldeko 19:30ean sartzen dira eta goizean 08:00etan ateratzen dira. Soldatapean lanean ditugun bi lagunetako bat geratzen da gauero beraiekin. Aurrera begira, egun duguna mantentzeko erronka dugu. Gure ametsa, berriz, inork Abegiren beharrik ez duelako Abegi desagertzea da. Baina, egun amets hori betetzea duela 25 urte baino zailagoa dela uste dut krisiaren,... ondorioz. Esango didazu urteetan aurrera egina dagoenak lana non

aurkitu dezakeen egun. Bertatik pasa diren eta bizitzan aurrera egitea lortu dutenak ere ezagutzen ditugu. Alkohola utzi eta lana topatzea lortu dutenak,... Oso pozgarria da halako berriak jasotzea.

### Zenbat egunetan gera daiteke pertsona bat bertan?

Lehen, hilean hiru egunez gera zitezkeen bertan. Zer egingen zuten? Hiru egun hemen egin, beste hiru Donostian, Iruñean, Bilbon,... eta berriro itzultzen ziren. Gure nahia berriak "rollozik" ateratzea zen. Badakit zaila dela, askok arazo potoloak dituztelako: lanik eta dirurik gabe,... Eta, egun lana bilatzea oso zaila da. Orain, hiru hilean 8 egunez egon daitezke bertan. 9 ohe eta bi sofa ditugu eta, beraz, 11 pertsonak egin



URDAIKARIAK  
*Altuna*  
HARAKINAK

Korreo, 39  
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA  
Gipuzkoa

kutxa

15

ARTE  
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

[www.sartutasortu.blogspot.com](http://www.sartutasortu.blogspot.com)

Tolosa - Kale Nagusia, 16  
Tlf. 677 340 685

ZABALA  
DESGUAZEAK

KUDEATZAILE BAIMENDUAK  
EU2/11/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA  
TEL/FAXA: 943 671 790 -  
MUGIKORRA: 696 593 347



dezakete lo Abegin. Afaltzen jende gehiagori ere eman izan diogu.

**Dituzuen eskaera guztiei aurre egiteko zenbat logela beharko zenituzkete?**

Urte sasoiaren arabera, 4-5 lagun kalean utzi behar izaten ditugu beraientzako oherik ez dagoelako. Ne-guan izaten dugu eskaerarik gehien. Ziurrenik, 9 oheren orde 15 bagenitu, 17ren beharra izango genuke. Egunero izaten ditugu 8-9 lagun bertan gaua pasatzen. San Juanetan eta Iñauterietan

astebetetz eta abuztuan 15 egunez egoten da itxirik Abegi. Urteko beste egun guztietan bere ateak zabalik izaten ditu. Pentsa, beraz, 25 urte hauetan zenbat pertsona pasa den bertatik.

**Zer sentitzen duzu pertsona bati, oherik libre ez dagoelako, ezin duela sartu esan behar izaten diozunean?**

Min egiten dizu. Sufritu egiten duzu halakoetan. Hotz egiten duenean eta oherik ez dagoela esan behar denean, gogorra egiten da, bai. Ezin zaie lurrean lo egiten utzi.

Nahiago nuke nik baietz esaterik izango banie, baino,...

**Zenbat langile eta bolondres ari dira Abegin lanean?**

Soldatapean ari diren bi langile ditugu. Gainontzeko guztiak bolondres gisara aritzen gara. Egunean, 3 lagun inguru aritzen dira bolondres gisara lanean.

**Abegiko bolondresen egun bat nolakoa den azalduko al zeniguke?**

19:00ak aldera etortzen gara egoitzara. Etortzen direnei sarrera-fitxa betearazten diegu. Oheak eginak dauden ikusten dugu eta hala ez daudenean, eginarazi egiten dizkiegu. Logelak txukun egon behar du. Jarraian, afariak zerbitzatu eta beraiekin hitz egiten dugu. Afariak enkar-gatuek egiten dituzte. Bolondres gehienak tolosarrak gara.

**Bolondres gehiagoren beharrik ba al duzue?**

Iraunkortasun batez etorriko liratekeen bolondres gehiago gure artean izatea beti da positiboa. Eskatzen duguna iraunkortasuna da. Egunero taldetxo bat etortzen da. Astea, beraz, egunetan banatuta dugu gure artean. Gazte gutxi dugu bolondres bezala. Lehen sendotzako taldeen bitartez, etortzen ziren.

**Bolondresen eta Abegiren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen artean zer nolako harremana sortzen da?**

Gure artean hitz egiten dugu. Beraien egoeraz gal-detzen diegunean, batzuk

erantzuten digute, beste batzuek ez, ... Kalean gehienek ezagutzen gaituzte. 25 urte daramatzagu bertan, beraz...

**Zein ezberdinetasun dago Abegi sortu ondoko urteetan zuen zerbitzuak jasotzen zizuzten eta egun jasotzen dituzten pertsonen artean?**

Hasierako urte haietan utziagoa zen jendea gerturazten zen hona. Orain, berriz, txukun etortzen dira: ongi jantzita, ... Beste munduko arazorik ez dugu izan. Ez zaie edanda sartzen uzten. Arazo txikiaren aurrean udaltzainei edo ertzainei deitzen diegu. Hemendik hala kanporatuak izan direnek ezin izaten dute urtebete pasa artean Abegiko zerbitzurik jaso. Gizonen aldean, emakumezko gutxi etortzen da.

**Jendarte, orain, duela 25 urte baino kontzientziatua-goa dagoela uste al duzu?**

Nire iritzian bai. Abegi ireki genuenean hainbat bizilagun eta dendariren kritikak jaso genituen, honek inguruan izan zezakeen eraginaren beldur zirelako. Egun ez ditugu halako kritikak jasotzen.

**Zerk bultzatu zintuen egitasmo honetan parte hartzea?**

Nik egun 72 urte ditut eta 25 urte daramatzat bertan. Sendotza osteko monitore nintzen eta egitasmoan parte hartzen hasi nintzen. Eta, oraindik bertan jarraitzen dut. Ongia egitea ona dela uste dut eta horrek bultzatzen nau bertan jarraitzera. Pertsona bezala aberastu egiten nau, bestela utzi egingo nukeen.





**Amaia Etxetxia**  
Nutrizio aholkularia

Udara hurbiltzen ari da, oporrak antolatzen, bidaiak... Ez al dugu askok eta askok inoiz gure bidaietan sabeleko arazorik izan? Bai, ezta? Izan ere, bada "bidaiariaren beherakoa" bezala ezagutzen dena: bidaiari eta turistek ematen den infekzio-arazo bat da (gastroenteritis mota bat).

## Koxk! Bidaietan tripako minak!

Kasu gehienetan, etxetik urrun gaudenean ematen da, beste ur eta elikagai batzuk hartzean. Janari-intoxikazioak udaldian laukoiztu egiten omen dira. Eta zer dira ba janari-intoxikazioak? Gaixotasunaren iturburua, elikagai batean zenbait germen kaltegarri agertzea izaten da: bakterio, birus edo parasitoak izan daitezke. Zenbait kasutan, bakterio hauek ere toxina bat sor dezakete janarian, eta toxina hau izan daiteke arazoaren arazoia. Kontaminatuta dagoen elikagaia pertsona askok jan arren, kasu batzuetan pertsona bat bakarrik gaixotzen da, eta beste kasu batzuetan talde osoa gaixotzen da. Honen arazoia hauxe izaten da: hartu dugun germen edo toxina kantidadea, eta beraiekiko dugun sensibilitatea.

Elikagaien kontaminazioa momentu desberdinetan gerta daiteke: gordetze prozesuan, manipulazioan edo antolakuntza prozesuan. Bakterioak hazteko giro ezin hobea izaten da,

adibidez, egosita (hau da, ondo berotuta) dagoen janari bat hozten doan bitarte horretan; horregatik kasu hauetan, janari hori bero mantentzen saiatzea gomendatzen da. Eta alderantziz, hotzean prestatutako janari bat berotzen uzten badugu, bakterioak hazteko giroa ere aproposa izaten da (adibidez, eguzkitan utzi dugulako); horregatik gomendagarria da janari hotz hauek izozkailuan mantentzea. Kanpoan jaten dugunean, segurtasuna emango diguten elikagaiak, ondo egosita daudenak izango dira, eta ura eta elikagai gordinak (frutak, entsaladak) ondo desinfektatuta daudenean; zalantza baten aurrean, hobe ez hartzea. Eta zeintzuk izan daitezke janari-intoxikazio hauen sintomak? Sintoma hauek, elikagaia jan edo edan ondoren hasten dira, ordu edo egun batzuk pasata: sintomaren agertze-denbora, patogeno mota eta bere kantidadaren menpe egongo da. Hauek izan daitezke sintomak:

tripako mina, beherakoa, sukarrak, jateko gogoa joatea, botagurak, gonbitoak edo ahultasun eta nekea.

Intoxikazio hauen aurrean haurrek eta adineko pertsonen arrisku handiagoa izaten dute; baita gaixotasun kroniko bat dutenak, haurdun dauden emakumeak, eta bere immunitate-sistema ahuldu dutenak ere.

Janari-intoxikazio gehienak arinak izaten dira eta egun gutxi pasata desagertzen dira (batzuetan 24 orduko kontua izan daiteke). Gonbitoa eta beherakoa desagertu arte janari solidoak eta esnekiak ekiditen dira, eta hobeto sentitzen goazen neurrian, berriro pixkanaka elikagai horiek sartzen dira. Baina gaixotasuna luzatzen bada, garrantzitsuena deshidratazioa prebenitzea izaten da (deshidratazioa, likido eta elektrolitoen galera da, hau da, gure gorputzak behar dituen elikagarri eta mineralak). Kasu hauetan sintomak desberdinak

izan daitezke (eta deshidratazio mailaren arabera, noski, larriagoak): ahoko lehortasun handia, sekulako egarria, logura eta nekea, txiza gutxi egitea edo ohikoa baino askoz ilunagoa izatea, buruko mina, nahasketa, zorabiatuta sentitzea edo kordea galtzea.

Deshidratazioa arina denean, uda zurrutaka maiz edatea gomendagarria izaten da; salda argiak eta urarekin nahastutako zukuak hartzea ere egokia izan daiteke. Ekiditekoak, kafea edo freskagarri karbonatuak. Suroak gomendatuak izaten dira, galdutako likidoak ordeztuko balio dutelako (gatza, azukrea, potasioa eta beste elikagarri batzuk izaten dituztelako).

# Sormenaren alde

Tolosaldeko zazpi eta hamabi urte bitarteko hurrek udaleku ezberdin batzuetan murgiltzeko aukera izango dute; udaleku artistikoak, sortzearen aldeko kanpamenduak. Kristina Roperok eta Izaskun Lazkano tolosarrak zuzendutako udalekuez informazioa eskuratu nahi izan du Galtzaundik.

Naiara Roldán de Aránguiz

Bigarren urtez jarraian Kristina Roperok eta Izaskun Lazkano martxan jarri dituzte 'Udaleku Artistikoak' deiturikoak. Intzako Sorabile baserrian kokalekua duten udaleku hauek uztailaren bi txanda ezberdinetan zabalduko dituzte euren ateak; uztailaren 4tik 9ra lehen eta 18tik 22ra bigarrena.

Kristina eta Izaskun eskualdean ezagunak dira, eskulan eta antzerki tailerrak herriz herri eskaintzen baitizkiete Tolosaldeko gaztetxoenei. Hamarkada luzea darama Izaskunek eskulanak lantzen Berastegi, Ibarra, Tolosa edo Alkiza bezalako herrietan. Kristinak beste horrenbeste egiten du Lazkaon, Tolosan, Andoainen edo Asteasun, esaterako, antzerki tailerren bitartez. Oraingoan eskaintza intentsiboa eskai-

niko dute udaleku artistikoen bitartez.

Bost eguneko udaleku hauen txanda bakoitzean 20 hurrek hartuko dute parte, "familia giroa" sortuz Izaskunek eta Kristinak zehazten duten moduan. Kanpamendua euskaraz dakien haur orori irekita dago, 7-12 urte bitartekoei, alegia. Adin tarte ezberdineko hurrek batera egotearen aberasgarritasunaz mintzatu dira udaleku artistiko hauen arduranak: "adin tarte



Uztailean, eskulan, antzerki eta perkusio tailerrak

# eko udalekuak

desberdineko haurrak talde berean izanik, haur gazteenek badituzte imitatzeko eredu maila ezberdinak, eta helduenek badute, gazteenak lagunduz, beren ezagutzak indartzeko aukera”.

Udaleku artistikoetan parte hartuko duten haurrek ekin-tzaz baterik izango dute eguna, goizean goizetik eguna amaitu bitartean: “antzerkia eta eskulanak tartekatzen ditugu, eskaini baino sortzearen aldekoak gara”, zehazten dute Izaskunek eta Kristinak.

Eskulan tailerrek, antzerki tailerrek eta perkusio tailerrek pisu garrantzitsua izango dute, ekintza hauek batuz sormen lana landuko baitute Kristinak eta Izaskunek, Xabier Belda-

rrain, musikari eta perkusio irakaslearekin batera.

Izaskun Lazkano eskulan tailerraren garrantziaz honela jardun da: “haurrei, eskuz burutu beharreko jarduera asko proposatzen dizkiegu; eskuek izugarri laguntzen baitute adimenaren garapenean. Esperimentatzeari, eskuztatzeari eta ekiteari leku handia ematen diogu, horrela sortzen baita jakin-mina eta haurrak beraien baitatik bideratzen dira beraien ikaste prozesuan”. Eskulaneekin batera antzerkiak ere berebiziko garrantzia eskuratzen du udaleku artistiko hauen baitan eta Kristina Roperok zergatia honela azaldu nahi izan du: “gorputz jarduera bezala ulertu behar da, haurra hezkuntza betean dagoenez, lekua eta mugimendua behar ditu. Gorputz ariketak burutuko ditugu: jolasa, gorputzarekiko kontrola, gorputzaren ezagutza, erabakiak hartzeko ahalmena, ziurtasuna mugimenduetan... gure ideiak gauzatzeko erreminta dela ulertuko dugu”.

Eskulan eta antzerki tailerrez gain jolasak, Bete-luko errekarra irteera, bideo proiektzioak, gaubelak, Beigorri abentura parkera irteera eta bestelako ekintzak ere ez dira faltako Intzan.

Sorabileko udalekuek arte sormena eta

artearrekiko hurbilketa oinarri badute ere nahitaezko bestelako helburuak ere bilatzen dituzte: harremanak lantzea, natura maitatzea, balio hezgarrien hedapena, euskaraz bizitzea eta jolas metodoak hobetzea. Helburu horietara bideratuko dira beraz, antolatutako ekintza ezberdinak. Horretaz gainera haurrak egunerako jardueretan ere parte hartuko du –janaria prestatzen, mahaia jartzen, garbitzen- “etxean gurasoek egiten dituzten lanen garrantzia erakutsi asmoz eta norbanakoaren zainketa pertsonalarekin ere autonomia garatuz”.

Birziklapena landuko den bestelako gaia da; “hondakin organikoaren konposta egingo dugu, organikoak ez diren hondakinen bereizketa ere egingo dugu. Ahal bezain energia eta enbalatze gutxien erabiliz”, diote udalekuko arduradunek.

Honako guzti hau gainera paraje ikusgarrian kokaturik, Nafarroako Intza herriko Sorabile baserrian, “egunero-kotasunetik at, inguru zabal eta aberatsean; naturarekin uneoroko harremanean, ekintzak lasaitasunez aurrera eramateko aukerarekin”, go-raipatzen dute arduradunek.

Udaleku artistikoetan ize-na emateko 676140622 edo 660798127 telefono zenbakira edo zuen.tzart@hotmail.com helbide elektronikora jo besterik ez dago.

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com



**ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA**

Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712



**matilda**

zure moda osagaien denda

Korreo Kalea, 3  
Tolosa

euskararen  
semaforoa  
euskararensemaforoa  
blogspot.com



## irakurri entzun ikusi

Igelak benetan hiltzen dira  
Iñaki Irasizabal

Kostako herri batean, zoritxar batek hautsi du ohiko patxada: neska gazte bat desagertu da; bahituta akaso, bortxatua eta eraila beharbada. Susmoak eta errezelok pizten dira alde guztietan, eta ez dago arrasto garbirik. Poliziak emaitzarik lortzen ez duela ikusita, neska-karen aita udaltzaina hasiko da bere kasa ikertzen, baita susmargarritzat jotzen dituenak xaxatzen ere. Bazterrak nahaste horretatik, baina, ustekabeko ondorioak etorriko dira.

Mukaki zpirit  
Xutik

Lapurdin 2008an sortutako taldea oso ospetsua egin da Euskal Herrian, Ipar zein Hegoaldean. Musikaren bidez jaia alaitzea da euren xedea. Ska, reggae, rocka... jendearen poza areagotzeko aitzakia.

Balenciaga, eta hala ere irauin  
Oskar Tejedor

Dokumentala. Diseinatzailearen bizitzan aurrera egingen du 'Balenciaga, eta hala ere irauin' dokumentalak. Bere jaiotzetik, familia apal baten baitan, aita arrantzalea eta ama jostuna duela Parisen arrakasta lortu arteko ibilbidea.

# Ekainaren 3tik 17ra bitarteko hitzorduak

## Dantza

### Espiral. Samadhana taldea.

Ekainak 3, ostirala. Tolosako Leidor Aretoa, 20.00. 10 euro. Ekialdeko dantza tradizionala eta sormenezkoa nahasten dituen ikuskizuna. Mugimendu tradizionaletatik hasi eta pixkanaka sormen eta originaltasunez betetzen joango da ikuskizuna.

### Coppelia. Kultur Etxeko Dantza Tailerra.

Ekainak 11, larunbata. Tolosako Leidor Aretoa, 18.00. 3 euro. Herrixka batean Swanilda bihurria, Franz senargaia eta Coppelius jostailugilea bizi dira. Azken hau inork eza gutzen ez dituen bere sorkariak gordetzen dituen etxean. Zer dira sorkari hauek? Giza tamainako panpinak. Jakin-minari eutsi ezinik, hor sartzen dira Swanilda eta bere lagunak Coppeliusen etxera jostailugileak han zer ezkututzen duen ikusmiratzera. Han eta hemen ondo arakatu ondoren, Swanilak artisauaren kuttuna den Coppelia panpinaren lekua hartzen du.

## Antzerkia

### V. Poltsiko Antzerki Lehiaketa.

Adunako Asvinenea, 22.30. Ekainak 3, ostirala. 2. Finalurreekoa. Artista gonbidatua: Diego Calavia, magoa.

Ekainak 10, ostirala. Finala. Artista gonbidatua: Amaia Gonzalez Caballero, dantza.

## Ospakizuna

### Uzturpe Ikastolako Festa.

Ekainak 4, larunbata. Ibarra. 11.00etan jaialdia; 13.00etan pilota eta pala finalak; 14.00etan bazkaria Belabieta kiroldegian; 15.30ean puzgarriak; 16.00etan toka eta 17.00etan dantzaldia.

### Hirukide Festa.

Ekainak 4, larunbata. Tolosako San Inazio kalean eta Zezen Plazan, 09.00-18.00 bitartean. Gaztelu puzgarriak San Inazio kalean eta Zezen Plazan San Joan sua.

**Bisiguaren Festa.** Ekainak 11 eta 12, larunbata eta igandea. Tolosa.

### Tolosako Guda.

Ekainak 12, igandea. Andia Elkarreak antolatuta Tingladoko eta Nafarroa Zubiko tropen desfilea eta ospakizun ekitaldia. 12.00. Tropen desfilearekin hasiera -Musika Eskola, Gorosabel, Rondilla, Triangelu (instrukzio ariketak), Sola, Nafarroako zubia (antzezpena), Enperadore, Gorriti eta Musika Eskola-. 13.00. Antzezpena. 'Gasteizko bataila'. Tolosako Banda, soldadu ingeles eta frantsesek lagunduta, 145 lagun. Tolosako Casinoan bazkaria.

### Izaskun Auzoko Festak.

Ekainak 11 eta 13 bitartean. Ibarra. **Ekainak 11, larunbata.** 18.30etan zaldi lasterketa eta 21.00etan bertso-afaria Izaskun Jatetxean Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin.

**Ekainak 12, igandea.** 12.00etan zaldi-proba, Zizurkilgo "Areta" eta Belauntzako "Etxeberri"; 14.30ean herri bazkaria, ondoren Egaña eta Zubeldia bertsolarien emanaldia; 18.00etan "Gorriti eta bere animaliak", ondoren pintxo eta sagardo dastatzea (Zabala, Aburuz, Gaztañaga, Intsalus eta Sarasola sagardotegiak) eta 19.00etan herriko trikitilarien eskutik erromeria.

**Ekainak 13, astelehena.** 10.00etan diana herriko trikitilarien eskutik; 11.00etan meza nagusia; 12.00etan hamaiketako herrikoia; 13.00etan bertso saioa, Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus; 17.30ean Alur dantza taldearen emanaldia, segidan haurrentzako gozokiak; 18.30ean bertso saioa, Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus eta 19.00-20.30 bitartean erromeria eta festen amaiera.

## Txotxongiloak

**Barneko iluna. Azika Taldea.** Ekainak 11, larunbata. Tolosako Topic Aretoa, 19.00. Helduak 7 euro eta haurrak 4. Goiz batez, Katixak etxe bat erosten



# Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Jasogailuen Operadorea	2011/06/03	5
Internet + e-administrazioa	2011/06/06	20
Polena: Elikagai osoetariko bat	2011/06/07	3
Eskaparatismoa	2011/06/13	20
Baratza bat lantzen ikas ezazu	2011/06/13	10

Udaran eskainiko diren aisialdi eta kirol ekintzak: eskalada, igeriketa, piraguismoa, etab.

Ikasketa arautuko matrikulazio epeei buruzko informazioa: Lanbide Heziketako Erdi eta Goi mailako zikloak, Unibertsitate Ikasketak, Helduen Heziketa Eskolako ikasketak, etabar. Informatu zaitetz, orain da garaia!

2011/2012 ikasturtean ikasteko asmotan bazaude eta nondik hasi edo nora jo ez badakizu... orain errazagoa izango zaizu prestatzea. prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

du, jakin gabe nolako zepo izugarria kokatzen den Barne ilunean...Oldar bizian, marota trufariek topatzen dituzte Kanarru eroa, Notario bihurria, Sorgin beldurgarria eta Katixa, irritik beldurrera punpakaibilki dena!

## Erakusketa

**Pott Keramika.** Maite Salutregi eta Ione Urain. Ekainak 11 bitartean, Tolosako Aranburu Jauregian.

## Kirola

**Bedaioko Mendi eta BTT Martxa.** Ekainak 12, igandea. Bedaio.



## Tolosaldeko Aste Berdea

**Banka etikoa, dirua giza-kien zerbitzura.** Ekainak 6-11. Anoetako kiroldegian.

**Tolosaldeko Eskolako Agenda 21en III. Topaketak.** Ekainak 8, asteazkena. Tolosako Musika Eskolan, 09.30ean.

## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 3</b> Ugarte M <sup>o</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Asteazkena, 8</b> Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	<b>Astelehena, 13</b> Olarreaga I. (Korreo kalea, 2) Tolosa
<b>Larunbata, 4</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Osteguna, 9</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Asteartea, 14</b> Ugarte M <sup>o</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra
<b>Igandea, 5</b> Olarreaga I. (Korreo kalea, 2) Tolosa	<b>Ostirala, 10</b> Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	<b>Asteazkena, 15</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
<b>Astelehena, 6</b> Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	<b>Larunbata, 11</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	<b>Osteguna, 16</b> Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra
<b>Asteartea, 7</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Igandea, 12</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	<b>Ostirala, 17</b> Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 345  
11ko ekainak 3



Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa  
Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA  
**ZUEN TZART**  
*eskuz esku  
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA  
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET  
TEL. 943 650 359

## TINDATEGIA



Laskorain kalea · TOLOSA  
Tel.: 943 652 618



Laskorain, 7 · TOLOSA  
Tel.: 943 654 916

# Muxutruk

## Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako tituluak daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protesiko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

## Etxebizitza

• 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubini. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berri-tua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

• Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m<sup>2</sup> eta erreforma egiteko. 620 129 295

## Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 laguntzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldea, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Burua inoiz baino argiago eta langileago izango duzu, ezagutza berriak zeureganatzeko desioz egongo zara. Leku aldaketek, ikerketek eta idatziek berebiziko garrantzia izango dute egun hauetan.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Bolada honetan zure baloreen bila zabilza, zure burua hobeto ezagutzeko beharra duzu. Kontu materialei ere balio gehiago ematen hasiko zara; bai diru kontu aldetik eta baita alor sentimentalari lotutakoei ere.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Pairatutako tentsioa botatzeko gai zara baina egonezina eta umore aldaketa horiek zaindu beharko zenituzke. Komunikatzeko beharra izango duzu, edonola moldatuko zara buruan duzuna eskuratzeko.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Bidean oztupoak besterik ez aurkitu arren, hauek gailentzeko kemenez lanean diharduzu, behar den baikortasunez. Sabelkeriak gastua sortzeaz gain, osasunaren kontra ere gogor ekiten du. Tentuz ibili!



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Desiozko hori heldu bitartean gogor ekin beharko diozu, hala ere esfortzuak bere ordainsaria izango du. Zure indarrak edozein zailtasuni aurre egingo dio.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Pozez beteriko egunak izango dituzu. Gertaeretatik aldentzea bezalakorik ez dago bestelako ikuspuntuaz jabetu ahal izateko. Garai bateko ideia horiek alboratu eta pentsamendu berriak sortu beharra.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Bizitza soziala aberasgarriagoa da partekatze bizipenak sortzen direnean. Zure intereskoa dena inoiz baino erakargarriagoa irudituko zaizu. Arrakasta entzutetsuak eta akats nabarmenak aldizkatuko dituzu.



## scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Konfiantza izatea gauza ederra da, izan ere bizitzak arrakasta izateko tokian jartzen zaitu eta. Egoera zailetatik ihes egiteko abilezia duzu. Kultura ezberdineko pertsoekin harremanetan jartzera aberasgarria izan daiteke.



## sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Iraganean sortutako egoerak bere fruituak eman ditu eta horretaz disfrutatze tartea hartzea ez litzateke ideia txarra izango. Hala ere, lanean adi egon zaituz konpondu ezinezko egoeretatik ihes egiteko.



## capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Arazoetatik at zaude, garai bateko kontuetatik urrun, egoera egonkor batean bizi zara orain. Hanka edo oinetan istripua jasateko arriskua; zainketa berehalakoa izatea gomendagarria izaten da horrelako kasuetan.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Bizipenek indar berezia hartu dute; egoeraren gidaritza eskuratzeko aukera izango duzu. Nahi bezala jokatzeo aukera. Bestalde, maitasun kontuetan jokaera bereziak izango dituzu; tentuz etxean izaten duzun jarrerarekin!



## piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Bolada oso baikor batetik igaro eta gero zailtasunen bat aurkeztuko zaizu. Arazoak aurre egiteko zure gaitasuna kolokan geratuko da. Jendaurreko lan batean arituz gero, emaitza onak jasoko dituzu.







GORENAK

EUSKAL HERRIKO  
SAGARDO GORENAK  
SOPASALICITAS  
DITI GARAVANAN

# EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK

## SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA



HAUEK IZAN DIRA AUKERATUAK.  
PROBARIK GOGORRENAK GAINDITU DITUZTELAKO.  
KALITATE ETA PROFESIONALITASUNEAN NAGUSI DIRIELAKO.  
HORREGATIK DARAMATE SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.



# HILETAREN BALIOA

Txina Inperiala



**40** URTE eman zituzten Qin Shi Huang enperadorearen hilobia eraikitzen

**2,13** Km<sup>2</sup> hartzen ditu guztira mausoleoaren azalerak

**700.000** LANGILE aritu ziren hori eraikitzen

**7.000** IRUDI lurperatu zituzten enperadorearen ondoan, benetako tamaina dute eta terrakotaz eginak dira

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,  
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

25 años  
en TOLOSA

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com) 24 orduko zerbitzua: 902 40 29 00

